



**EBAZPENA, 2024ko abenduaren 9koa, Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuordetzarena; honen bidez, 2024-2025 ikasturterako unibertsitateko Ikasiker lankidetza beka eskaeren ebazpena ematen du (A modalitatea).**

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuak, 2024ko ekainaren 25ko aginduaren bitartez (uztailaren 11ko EHAA n argitaratua), unibertsitateko ikasleentzako Ikasiker lankidetza beken deialdia egiten zuen 2024-2025 ikasturterako. Agindu horrek, onartutako oinarrien 2.1 artikuluan bekaren A Modalitatea jasotzen du: ikasturtean zehar egin beharreko lankidetza (2025eko urtarrilaren 1etik 2025eko ekainaren 30era bitartean).

Agindu horren 15.2 artikulua ezartzen duenez, A eta B modalitatearen ebazpenak lau zerrenda izango ditu: eskabide esleipendunak, ez-esleipendunak, beka eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten arren, beka lortzeko ordena-zenbakia lortu ez duten eskabideen zerrenda (erreserbak) eta eskaeren zerrenda, lankidetza-proiektua egiteko eskatzaileak hautatutako ikertaldeak edo ikerketa-zentroen arabera ordenatuta.

Hautaketa-batzordeak, 2024ko abenduaren 9an, Ikasiker lankidetza bekarako A modalitatean aurkeztutako eskaeren behin betiko ebazpen proposamena aurkeztu dio Unibertsitate eta Ikerketa Sailburuari.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

## EBAZTEN DUT

**Lehenengoa:** Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena zenbakia dutenei beka ematea, zenbateko osoa: 300.000 euro, A Modalitatean (I. Eranskina).

**Bigarrena:** Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileei beka ukatzea, A Modalitatean (II. Eranskina).

**Hirugarrena:** Deialdi honetako beka eskuratzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten arren, beka lortzeko ordena-zenbakia lortu ez duten eskabideen zerrenda argitaratzea (III. Eranskina). Zerrenda horrekin erreserben zerrenda bat eratuko da; zerrenda hori baliatuko da uko-egiteren batengatik bekaren bat libre geratzen bada beka hori emateko (A Modalitatea).

**Laugarrena:** Ikertaldeak edo ikerketa-zentroen arabera ordenatutako zerrenda, eskaera adjudikaziodunak, ukatuak eta erreserbak jasotzen dituen argitaratzea (IV. Eranskina).



**Bostgarrena:** Ebazpen honen kontra, gorako errekurtoa jarri ahal izango du interesatuak, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailburuari zuzenduta eta hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

Adolfo Morais Ezquerro

UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUORDEA